

Leioa, martxoaren 4an

Kaixo,

Unai Llantada naiz, Enkarterri aldeko alpinismozalea. Hogeitahamar pertsona inguruko talde batekin, udaberri honetan Nepalera joateko bidai bat antolatzen ari naiz, Everesteko kanpaleku nagusira zehazki. Behin han egonda, ni neuk Everest igotzeko saiakera egingo dut talde murriztu batekin (ikusi [www.everest2011.eu](http://www.everest2011.eu) eta [www.ubietamendi.galeon.com](http://www.ubietamendi.galeon.com) ).

Bidai honek BiscayTIK Fundazioaren eta beste elkarte batzuen babesa dauka. BiscayTIK Fundazioak txapelketa bat antolatu du, "Himalayara Bidea", Bizkaiako pertsona bat gonbidatzeko gurekin etortzera. Pertsona honek Nepalera lagunduko gaitu gastu guztiak aurrez ordainduta dituelarik (17 egun, hegazkin pasaia eta kanpaleku nagusirainoko igoera barne. Gastu pertsonalak ez daude barne).

Txapelketa Ikusentzunezko Rallye bat izango da, Urkiolako Parke Naturalean Martxoaren 12an. Bertan, Bizkaiko Foru Aldundiak debalde eskeintzen duen "@bizkaia.eu" kontu elektronikoa duten pertsona guztiak parte hartu ahal izango dute. Kontu hau oraindik aktibatuta ez daukatenean, Rallyaren egunean bertan aktibatu ahal izango dute. Partehartzaileek larunbat osoa edukiko dute argazki bat eta bideo bat egiteko parkean barrena, antolatzaileek ezarriko duten gaiaren inguruan. Eguna amaitzen denean, antolatzaileei eman beharko diete argazkia eta bideoa. Hurrengo astean, bozketa publiko bat egingo da BiscayTIK-ek duen "Zerbitzuak" Plataforman ([www.zerbitzuak.bizkaia.eu](http://www.zerbitzuak.bizkaia.eu)) jasotako argazkien artean. Argazki horrek puntuazioaren erdia suposatuko du eta beste erdia epaimahai berezi batek emango du: Fundazioak izendatutako pertsona bat, telebistan errealizatzailerik bezala lan egiten duen Raul San Roman, eta hirurok. Aurkeztutako bideoen artean, komunikazio trebetasun ona, originaltasuna eta benetako gogoz egitea baloratuko da. Honen zergatia hau da; txapelketaren irabazlea, behin Himalayan egonda, kronika egin beharko du egunero ikusentzunezko materialarekin (bideo, argazki eta e-mailen bitartez).

Txapelketaren zehaztasunak "Zerbitzuak" web-orrian kontsulta daitezke, baseak laster argitaratuko dira bertan. Aurre-partaidetza egitea gomendagarria da, haiek zenbat pertsona joango diren jakin dezaten, baina hau ez da ezinbestekoa. Fundazioak duen Facebook-orrialdean ere informazioa jarriko dute laster.

e-mail honekin, ahalik eta jende gehiagori informazioa zabaltzea dugu helburu, egun gutxi geratzen direlako eta saria oso erakargarria delako. Informazio hau zabaldu dezazuela eskatuko genizueke ezagutzen dituzuen bazkide, kolaboratzaileen eta mendizaleen artean, eta gonbidatzen zaituztegu parte hartzera eta kirol hau bultzatzera denok batera.

Milesker,

Unai Llantada

